

I Bakara

Neure Josu laztantxuba,
Lo egixu gozoro,
Lo, maifia, lo, kutuna,
Lo pozik ta lo bero.
Siaskarik epza-dozu
Dinbi-danba eifeko,
Ez negarik ein, mafia,
Ez negarik, Josutxo,
Amaren altzuan zagoz
Otxiauta obeto.
Lo, lo, lo.

Bezkuua

Josu urukutuna,
Maite, txatxana,
Polifa, liraña,
Pitxi, laztana:
Gotzon ta gixonak
Pozez beterik
Gabiltz zure lua
Atzeindu nairik.

II Bakara

Alkafen leyan, gotzonak,
Erdi gaur' Belen'era,
Gaudiko bakalduna
Lotxuan imintera.
Negubaren otzikarak
Aiztu eragifeko,
Abestu egijozube
Gogoz eresindaro,
Lotxua ein daikiantzat
Erestijaz gozoro.
Lo, lo, lo.

Zuluaga'tar Luke.

Gabon-ipuña Gabon zoruntsuba

Galea txiki-txikija zan; eta gustiz txiro edo pobria ixan aren, garbitasuna agiri-zn edonun.

Leyo-onduan, aulki andi baren jarrita, sei-saspi urtedun umetxu margul erkiña leyaña-ziaf (kistala-ziaf) kalera begira eguan.

—Ama: oso zoruntsuba da neskatiñla ori, ¿ezta?

Eta zu esanik, atzamañagaz erakusten eban kaliañ burdi batetik bitxijak ataraten inarduban neskatiñla gordin azkara

—Ez, neure mate ori; bera eztoz eu baxen zoruntsuba Gauza ederak yaruazak eskubetan, baña beretzako bakarik eztozak gustijak. Eta ganera etxaukok besarkatu leiteken amea, ¡gaxo-gaxua! Eta bijar, asetuta egongo dok bere bitxijak ikusi ta ikusijaz; eta inñok—neuk yakijaz—etxaukok etofiko Josu Umiazaz itz-egiten, eta etxautsoek edestuko ze lan etofiri zuan gau onetan ludi gñstiko umiak atsegindutiaren, eta zelan mate yuazan onak eta mendubak dozakanian. Ekik, ba, ene gotzon zoragarjoiñ, bera ezto kala eu baxen zoruntsuba, euk amea daukolako, ta Gabona ospatuteko lusagar andi andi bat efeta ipiñiñ daukadalako.

Eta itxok apa-musubakaz nastaurik, umia baxen zurbilla zan amek maya gertetan eban, apari txiro apala jarteko.

Zukuba janda, ume alayaren esku-tartian auts estaldutako lusagar lodi ederañ jafi eban.

Onetariko txiroen pozak ikusi eztozubezanok, ez bañerik egin.

Umetxubak esku poliñakaz apa-egiten eutson lusagari, beragaz beroruten zala, ta abuz baño lenago begijetaz jaten eban. Neguba gogofa zan, lusagarak karoegijak egozan: ¡sari andija!

* * *

Atian jo eban.

—Ama—esan eban umiak—aguratxu soñularija da; atia edegi.

Berau sañtu zan, urtiak makurtuta, ta eskuban txillibituba etoñala.

—Agur ameari, agur umiari. ¡Jaunguaren egun edefa! ¡Oi! Gau onetan apalduteko beste irabazi al bañeu...! Egun askotan barau-egiten otuta nago; baña Gabon-gabian ezin apaldu ixatia... ¡Oi, lafegi da niretzat!

Paul txikija adi eguan. Soñularija bere amearen antziñeko aizkidia zan eta bera bein baño geyagotan agurearen soñubat entzuten egon zan adura eartijola.

Bere aulkitik jatsi zan, esku-artian ondiño lusagara etoñala, ta agurea gana juanda, esan eutson.

—Eutsi, aftu egixu; enuk damotzut; beragaz Gabon egixu. Eta agurearen eskubetan jafi eban, baña onek ezeban ftu gura.

—Amatxu; aitzeko esayozu, ta nik neure baruhan eukiko dot Gabona, ta Josu Umia neugaz poztuko da, zeuk askotan irakatsi daustazun lez.

—Aftu egixu, Paskal on ori, Paul'ak bijotz-bijotzez eskintzen dautzu, ta neu pozik nago beria bestien alde izten ñan.

—¡Jaun onak onetsi begi, bata zeu batez!

Eta agureak, umia baxen zoruntsuba, aftu eban lusagar eria gozo-gozoro, ta apur bat autsa kendurik, azala jaso ta aginka egin eutson zatika-zatika. Umiak begiratuten eban inarñi edo inbiri-barik, baña gozo-gozua edo-eguala oldozturik...

Amaitu ebanian, agureak aftu eban Paul bere besoetan eta laztandurik esan eutson:

—Eutsi, laztana, yakuuadan gustija.

Eta txillibituba afturik, asi zan soñurik, poliñenak eta gozernak joten.

Umiak atsegiñez bare-egiten eban; amearen bijotza pozez beterik eguan, eta une atan etzan ludi osuan irukoitz ori baño zorunsubagorik.

Paul oeratu zan eta gotzonen musubaz ta Josu Umiañen apeaz ames-egin eban. Ufengo goxian, atian joten eban orduban itxartu zan. Neskame batek esaten eutson bere ameari:

—Eutsi, neure ugazabeak gozaki onek bidaltzen dautzuz. Geure neskatiñak lafegi jan eban bañ eto gau osuan gexorik egon da, ta gaur goxian ondiño negafez dago. Ugazabeak eztañ onetariko gozakijak etxian ikusi gura. Zaindu zeure umia, geure neskatiñari lez jazo eztañjontzat.

—¡Oi, neure bijotz-bañuban Gabon osua daukot neuk! diño Paultxu'k.

—¿Zer ete diño umetxubak?

—Gabon pozkarija ixan dautla-diño amek-eta neuk eskafak dagituz, ta zeuk zeure ugazabeari egingo dautsoz ¿ezta? Ona emen, bañ zorun-zoruntsubak, ixan garala, ta gaur ondiño be gustiz pozik gagozala.

—Agur diño neskamiak.

Eta alde-egiten daua, bere barurako diño:

—¡Gustiz pozik! Egiz, onelakoxiak bakarik euren Gabonaz zoruntsu egon leitekez... ¡Gustiz pozik!... ¡Eta guk eztogu ixan egun osuan negaf ta didafak baño!

¡Etrakin'ek euzkeralduta.

J. B. HEGO.

Gabon-abestiyak

I

Agur Josu, Miren Joseba
Jokin eta Ana
Bai-dakigu Josu maña
Jayo zan gaba dala

II

Egiazko beria da-ta
Beaf degu zinetsi
Jaungoiko'ren Semia gaur
Zerutik zaigu jextxi.

III

Inork ezin beirik eman
Au dan bañan ohea
Belen'en jayo omen-zaigu
Gure Salbatzailea.

IV

Atsegin donezko beria au
Munduak dezan jakin
Adierazitzen digute
Izaf edef batekin.

V

Goazen danok Belen'era
Auf edef onen billa
Pozik barkatu digunean
Pekatuaren miña.

VI

Auf edef au Bera dalarik
Zeru-Lufen Jabea
Jayo nai-izan du Ludira
Ondasunik gabea.

VII

Onelako beria edera
Degunean ekari
Saritxu-on bat uste-degu
Gaur etxe onetatik.

VIII

Jakiñikan etofi gera
Gaste-talde guzia
Sari-egillea dalako
Emengo nagusia.

IX

Etxe edef onek daukazki
Ate biak zabalak
Gurasoen gain-gañekoak
Dira seme-alabak.

X

Azketsi; utsegiterikan
Baldin egin ba-degu
Ufen-urtean ere pozik
Etoñiko gera gu.

XI

Obeki abestuko degu
Askoz ere gaur baño
Jainkoa'k gabon dizutela
Datoñen urteraña.

TXADON-ZAYA.

(Astigarağa.)

Abesti onek, azpijan ipinten detan eresiyaz, 80 urte-dun emen batek lengo gau baten abestu zizkitan. Emen da agertzen dira abestitza piska bat aldaru.



AUSTRALIA'TIK NEURE ABERI MATĒRA

Irakurle mate ori: Zeuri biarbada atsegin ixango yatzu urñinetako ekandu-bafi jakitia jexta?

Aof, ba, neuk gixaxo onek edestuko dautzut zer-edo zertxu luralde onetako barijetzaz.

Lenengo edestuko dautzut luralde onetan Uskurtz edo Erlekiñua zelan dagon.

Irakurlioi: zeuk biarbada uste dozu oindiño ezta! ona Goizpar edo Ebangelijuaren argirik eldu, jexta? Okef zagoz, ba, ori uste ba-dozu.

Emeko notiñik geyenak jaungozaliak dira. Ikusi beste-lan uri andijetan jaungozaliak dankezan elexa edo txadon andi-ta apañak. Eta ez uste uri andijetan bakarik: txikijetan eta auzotegijetan be txadon polit eta apañak ikusten dira, ta egunoro jaupa edo meza deuna egiten da txadon onetan.

Irakurlioi, onetan lanik geyen egiten dabena abade edo jaupari irlandafak dira. Onek be (euzkotafik askok lez) euren aberiñik urin Goizpara zabaltzen diñardube.

Onetariko jaupari batek esan eustan, eta uri andi batzuk ixendau be, lautik iru jaungozale edo uskurtzaliak dirala.

Bata bai-dauke umezurtzak jasoteko etxerik asko txadon edo elexa ta ikastoleakin; monja edo lekainiak zaintzen dabez orek, jaupari bat buru dala.

Irakurlia: emen be bai-daukoz oretariko gixon ankefak idatzitako sasi-uskurtz edo guzufezko erlekiñuak, baña onek indafik gutxi dauko emen, eta noxik-bein ikusten dira lau egufegaz egñiko txabola batzuk, elexa edo txadon-agerkunik ezetan be eztauketak eta onetantxe egiten dabez euren batzarak eta jan-edanak be.

Baña Uskurtz deunak gixon gustijak zorunbidez daruananek, onek dauka emen indaf andija, ta ez sasi-uskurtz.

Irakurlioi: jakin dozu emen jaungozaliak dirala geyenak eta aurerantzian be ixango dira. Jauna lagun, Ireland'af jaupari zintzuak bixiko ba-dera.

Agur irakurle mate; urengo idazkijan (J. I) beste ekandu batzuk edestuko dautzudaz.

Balantzatzi-Loyola'taf Bingen.

Ayr'tik, 1916-Iralla-24'gn.